

25.

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_



### **2022ko maiatzaren 10a, asteartea.**

Eguneroko maitea:

Datorren astean LGTBIfobiaren aurkako eguna da. Gelan landuko dugu, baina artikulu hau interesgarria iruditu zait.

#### **LGTBIfobiaren aurkako eguna**

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea. Horrek esan nahi du, hori baino lehen gaixotasun bat zela pentsatzen zutela.

Ordutik, maiatzaren 17a egun garrantzitsua da lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualentzat. Haien eskubideen aldeko eguna da, eta sufritzen duten diskriminazioaren aurka borrokatzen da.

Herrialde batzuetan LGTBI pertsonen eskubideak defendatzen diren arren, munduko beste hainbat herrialdetan ez da onartzen genero-aniztasuna, eta beraiek aurkako ekintza asko egiten dira.


Argi dago LGTBIfobia oraindik badagoela; hau da, Lesbianeiei, Gay-ei, Trans-ei, Bisexualei eta Intersexualei gorrotoa dien jende asko dago.

Baina nola da posible, pertsona batek gauza bat sentitzeagatik, edo den bezalakoa izateagatik jendeak gorrotatzea? Eta nahi duen bezalakoa izan nahi duelako iraintzea, mehatxatzea, jotzea, hiltzea...?

Horregatik, maiatzaren 17an LGTBI bandera ikusiko da gure herri eta hirietan. Horrela, beraien eskubideen alde gaudela eta aniztasunaren alde gaudela adieraziko dugu.

25.

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_



Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. Zer ospatzen da maiatzaren 17an?

.....  
.....

2. Zergatik da garrantzitsua maiatzaren 17a?

.....  
.....  
.....

3. Zer esan nahi dute testuan agertzen diren LGTBI letrek?

L: .....

G: .....

T: .....

B: .....

I: .....

4. Zer da LGTBIfobia?

.....  
.....  
.....

5. Ba al dakizu nolakoa den LGTBI bandera?

.....  
.....